



**Datuak Babesteko**  
Euskal Bulegoa  
Agencia Vasca de  
**Protección de Datos**

## **EBAZPENA, 2022KO MARTXOAREN 28KOA, DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN ZUZENDARIARENA, DBEB-N HUTSIK DAGOEN LANPOSTU BAT EUSKO JAURLARITZAKO LAN-POLTSAN PREST DAUDEN LANGILEEKIN ALDI BATERAKO BETETZEARI BURUZKOA.**

Otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoak xedatzen duenez, DBEB zuzenbide publikoko entea da, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoak ditu, eta herri-administrazioekiko inongo loturarik gabe beteko ditu bere eginkizunak.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoan dokumentazio eta informazio teknikariaren lanpostua (kodea: 012, dotazioa: 1) hutsik egonda, eta zerbitzuak lehentasunezko interesa duenez, 2022ko urtarrilaren 31ko ebazpenaren bidez lanpostu hori zerbitzu-eginkizunen bidez aldi baterako betetzeko deialdia egin zen, honako arau hauetan xedatuta dagoenarekin bat: uztailaren 6ko 6/1989 Legearen, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoaren 54. artikuluan eta urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren, Euskal Herri Administrazioetako Funtzionarioen Lanpostuak betetzeko araudia onartzekoaren 47. artikuluan eta hurrengoetan.

Hala ere, 2022ko martxoaren 17ko ebazpenaren bidez, deialdi hori hutsik deklaratu zen, aurkeztu diren izangaietako batek ere ez zuelako betetzen deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintza (A taldekoa izatea).

Lanpostu horiek karrerako funtzionarioekin betetzeko zailtasunak daude, eta horregatik IVAPen laguntzaz bete beharko dira aldi baterako, Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakiaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzkoaren hirugarren xedapen gehigarrian xedatuta dagoenaren arabera, non honako hau ezartzen baita: «*Hala eskatzen badute IVAPek EAEko beste herri-administrazio edo erakunde publiko batzuen eskura ipini ahal izango du lan-poltsetan sartuta daudenen zerrenda*».

Horrenbestez, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoak esleitzen dizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

### **EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa:** Onartzea «dokumentazio eta informazio teknikariaren» lanpostu hutsa bitarteko langileekin betetzeko deialdia arautuko duten oinarriak, zeinak ebazpen honen I. eranskinean agertzen baitira.

**Bigarrena.** Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren Hautaketa eta Horniketa Zerbitzuari eskatzea Goi Mailako Teknikarien Kidegoko Artxibozain, Liburuzain eta Dokumentazio Eskalako gaur egungo lan-poltsa (4. hizkuntza-eskakizunarekin) osatzen duten lehenengo pertsonen zerrenda.



**Laugarrena.** Ebazpen hau 2022ko martxoaren 30ean DBEBren iragarki-oholean eta web orrian argitara dadila agintzea.

Ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio DBEBren zuzendariari, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 123. eta 124. artikuluek xedatutakoaren arabera, Ebazpena DBEBren web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzekoak xedatzen duenaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 28a

**ZUZENDARIA,  
MARGARITA URIA ETXEBARRIA.**